

KOSTUEN EGITURA

Gure enpresak, beste guztiek bezala, gastu batzuk ditu. Alde batetik, gastu finkoak ditugu; bestetik, aldakorrak.

Gure kostu finkoak hurrengoak dira: lokalaren alokairua, bazkideen soldatak, webgunearen domeinua eta hostinga, ura, elektrizitatea, moldeak, bulegoko telefonoa, ordenagailua eta Wifia.

Kostu aldakorrak berriz hauek dira: hileko produktuaren kopuru eskaera, mugikorren zorroak sortzeko silikona, tinteak, mikrofibrako oihal leuna, imanak eta larru sintetikoa.

Gainera, gure enpresak, kostuak bultzatutako negozio eredua du, kostu-egitura ahalik eta baxuen mantentzea baita gure helburua, horrela, gure aktiboa prezio baxu batean bezeroei eskaintzeko aukera izango dugu.

